

AGURRA

2017ko urtekaria duzue esku artean. Urtero bezala, aurtengoan ere, urteurrenak, bitxikeriak, elkarrizketak, historia, oroimena... eta bestelako artikuluek osatzen dute liburua.

Gure herria hobeto ezagutzeko baliagarria da urtekaria, baita gure herrian azken urtean gertatutakoak jasotzeko ere. Natur ondarearen inguruko lanak; historia, ohitura eta erritoak jaso eta ezagutarazteko artikulua; kultura eta jai arloko taldeen urteurrenak; gure herriko alabei elkarrizketak beren lanaren errekonozimendu gisa; emakumeek eta feministek landutako prozesua eta egingo duten Plazaren inguruko erreportajea; argazkiak...

Aipagarria da urtekari hau borondatezko lanean oinarrituta egiten dela, eta lan guztien egileei eskerrak eman nahi dizkiegu beren ekarpena egiteagatik. Zuek gabe, eta zuen denbora eta dedikaziorik gabe, urtekari hau ez litzateke posible izango.

Zure gustukoa izango delakoan, eta gure herria eta bertan aurtan gertatutakoa hobeto ezagutzeko balioko dizulakoan, gozatu irakurraldiarekin.

Hernaniko Udal Gobernu Taldea